



## ZARAUZKO UDALA

Alkatetzak 2019ko irailaren 11ko 1015 dekretu bidez, honako hauek onartu zituen: Zarauzko emakumeen etxearen proiektua egiteko, dinamizatzeko, programak eta zerbitzuak prestatzeko eta kudeatzeko zerbitzua kontratatzeko Administrazio Klausula Zehatzen Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria onartzea, eta kontratu hori esleitzeko prozedura irekiaren deialdia egitea.

Lizitazio iragarkia 2019ko irailaren 11an Zarauzko Udaleko kontratatzailearen profilean argitaratu zen, eta eskaintzak aurkezteko epea 2019ko urriak 1ean amaitu zen. Eskaintzak aurkezteko epean hurrengoek aurkeztu zituzten bereak:

- KABIA HEZIKETA ELKARTEA
- ARAZI IKT, S.L.
- DAITEKE GIZARTE AHOLKULARITZA
- ORTZADAR, S.L.

Kontratazio Mahai Iraunkorrek, 2019ko urriaren 22an egindako ezohiko bileran, B eta C kartazalen emaitza ikusi ondoren hurrengo proposamena egin zuen:

	B kartazala	C kartazala	GUZTIRA
KABIA HEZIKETA ELKARTEA	20 puntu	58,40 puntu	78,40 puntu
ARAZI IKT, S.L.	17 puntu	46,65 puntu	63,65 puntu
DAITEKE GIZARTE AHOLKULARITZA	22 puntu	57,46 puntu	79,46 puntu
ORTZADAR, S.L.	25 puntu	55,05 puntu	80,05 puntu

Kontratua ORTZADAR, S.L. enpresari adjudikatzea, egin den txosten teknikoa oinarritzat hartuz, eta orokorrean eskaintzarik onena aurkeztu duelako; kontratua adjudikatu baino lehenago, enpresak aurkeztu du eskatutako dokumentazio guztia.

Aurrekoa kontuan izanda, honakoa **ERABAKITZEN DUT**:

**Lehena.-** ORTZADAR, S.L. enpresari adjudikatzea Zarauzko emakumeen etxearen proiektua egiteko, dinamizatzeko, programak eta zerbitzuak prestatzeko eta kudeatzeko zerbitzuaren kontratua. Kontratuaren baldintzak, exekuzio-epeak eta ordaintzeko modua lizitazioaren oinarri izan den baldintza-agirian adierazitakoak izango dira eta adjudikaziodunak egindako eskaintzaren arabera, pleguen eta ondoren adierazten diren baldintza berezien aurka ez doan guztian:

Kontratuaren prezioa: 47.190 euro BEZ barne/urteko (39.000,00 euro + 8.190,00 euro BEZ). Adjudikatutako prezioa urtekoa izango da, eta zerbitzua noiz ematen hasten den kontuan izanda esleipenaren prezioa proportzioan murriztuko da.

Adjudikatutako zenbatekoa zerbitzua emateko izango da. Egingo diren programa, ikastaro, jarduera, etabarrak antolatzeko kostua bere osotasunean Udalak bere gain hartuko du.

Kontratuen iraupena: Gauzatzen den hurrengo egunetik aurrera urtebeteko iraupena izango du kontratuak. Kontratua luzatu ahal izango da, baina iraupen osoa, luzapen eta guzti, gehienez ere bi urtekoa izango da.

Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du eta enpresariarentzat derrigorrezkoa izango da,

betiere, kontratuaren iraupen-epea amaitu baino lau hilabete lehenago gutxienez bidali bazaio aurreabisua.

-Kontratuak gehienez bi urtetako iraupena izango du.

**Bigarrena.**- Adjudikaziodunak udaletxean agertu beharko du kontratua administrazio dokumentuz legezko egiteko.

\*\*\*\*\*

Mediante decreto de Alcaldía nº 1015 de 11 de septiembre de 2019, se aprobaron el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, el Pliego de Prescripciones Técnicas para la contratación del servicio de puesta en marcha del proyecto de la Casa de la Mujer del Ayuntamiento de Zarautz, de elaboración de programas y de servicios que se desarrollarán en ella, y su dinamización y gestión y la convocatoria de procedimiento abierto para la adjudicación del mencionado contrato.

El anuncio de la convocatoria se publicó el 11 de septiembre de 2019 en el perfil del contratante del Ayuntamiento de Zarautz, y el plazo de presentación de ofertas finalizó el 1 de octubre de 2019. En el plazo señalado al efecto presentaron ofertas los siguientes:

- KABIA HEZIKETA ELKARTEA
- ARAZI IKT, S.L.
- DAITEKE GIZARTE AHOLKULARITZA
- ORTZADAR, S.L.

La Mesa de Contratación Permanente, en reunión extraordinaria celebrada el 22 de octubre de 2019, a la vista del resultado de los sobres B y C, propuso lo siguiente:

	Sobre B	Sobre C	TOTAL
KABIA HEZIKETA ELKARTEA	20 puntos	58,40 puntos	78,40 puntos
ARAZI IKT, S.L.	17 puntos	46,65 puntos	63,65 puntos
DAITEKE GIZARTE AHOLKULARITZA	22 puntos	57,46 puntos	79,46 puntos
ORTZADAR, S.L.	25 puntos	55,05 puntos	80,05 puntos

Adjudicar el contrato a la empresa ORTZADAR, S.L. tomando como base el informe técnico emitido, por ser esta en su conjunto la mejor oferta. Ha sido presentado en plazo por la empresa la documentación justificativa previa a la adjudicación del contrato.

Por todo lo anterior, **RESUELVO:**

**Primero.**- Adjudicar el contrato de servicio de puesta en marcha del proyecto de la Casa de la Mujer del Ayuntamiento de Zarautz, de elaboración de programas y de servicios que se desarrollarán en ella, y su dinamización y gestión a la empresa ORTZADAR S.L., en las condiciones, plazos de ejecución y forma de pago señaladas en el pliego de cláusulas que han servido de base para la licitación, y de acuerdo con la



## ZARAUZKO UDALA

oferta realizada por la empresa adjudicataria en lo que no se oponga a los pliegos y las condiciones particulares que a continuación se indican:

Precio del contrato: 47.190 euros IVA incluido/anual (39.000,00 euros + 8.190,00 euros de IVA). El precio de adjudicación se entiende referido al año y el pago del mismo será reducido en la cuantía proporcional a la prestación del servicio.

El precio de adjudicación se refiere exclusivamente a la prestación del servicio. Los gastos derivados de los programas, cursos, actividades, etc. que se organicen serán sufragados íntegramente por el Ayuntamiento.

Plazo: El plazo de ejecución del contrato será de un año contado desde el día siguiente a la formalización del contrato, y susceptible de prórroga anual sin que la duración total, incluidas las prórrogas pueda exceder de dos años.

La prórroga se acordará por el órgano de contratación y será obligatoria para la empresa o entidad adjudicataria, siempre que su preaviso se produzca al menos con cuatro meses de antelación a la finalización del plazo de duración del contrato.

- La duración del contrato será como máximo de dos años.

**Segundo.-** La empresa adjudicataria deberá comparecer en el Ayuntamiento para formalizar el contrato en documento administrativo.

Zarautzen, 2019ko azaroaren 12an  
Alkatea



